





Miguel Garai, arkitektoa

Arkitekturako Eskolako autobabeserako planak Zentroa **nola hustu behar dugun** esaten digu. Hona hemen jarraitu behar dituzuen arauak:


Larrialdietarako irteerak

Alarmak iztzen badu, **pertsona guztiek eraikina hustu behar dute** modu ordenatuan, hurrengo arauari jarraiki:

- Egon lasai, eta **ez egin korrika**.
- Irten eraikinetik hurbilen daukazu ebakuazio **eskaileratik**. Hiru eskailerak hurrengo planoan agertzen dira: **ekialdea, erdialdea eta mendebaldea** izenekin.
- Ikasgela edo laborategian bazaude jarraitu irakaslearen edo zerbitzuko arduradunaren oharrei.
- Ez erabili igogailurik** inoiz.
- Ez joan atzerantz**, eta ez saiatu zure gauzak hartzen.
- Norbaitek eraikinetik irteteko arazoak baditu: lagun iezaiozu.



Elkargunea



Eskola hustu ondoren, pertsona guztiak elkargunean elkartu, Oñati plazan.

Zurekin zeuden pertsonak kanpoaldean ere daudela egiaztatu.

Norbait falta dela seguru bazaude eskolako langileei jakinarazi.